

IGERIKETA ARTISTIKORAKO ARAU ESPEZIFIKOAK, 2020-2021 IKASTURTERAKOAK

1. Kirol diziplinaren txapelketa jardueren izena

IGERIKETA ARTISTIKOA

2. Kirol diziplinaren txapelketa jardueren joko araudiak

Ez da beharrezkoa araudia egokitzea.

3. Kirol federazioek antolatutako txapelketetarako edo jardueretarako jarduketa arauak

1) Dagokion egutegian jasotako eskolako igeriketa artistikoko txapelketa bat antolatuko duten klub edo federazio guztiek eskatu beharko diote dagokion entitateari igerilekuaren inguruko edukiera, eta hura jaso beharko dute (instalazioaren jarduera lizentzian eta autobabes planean ageri da).

Txapelketetan izena emateko azken eguna, ahal dela, txapelketa egingo den astearen astelehenera aurreratuko da.

Behin instalazioaren edukiera eta dagokion federazioan (lurraldekoan edo EAekoan, txapelketaren arabera) txapelketarako egindako izen emateak ezagututakoan, beharrezkoa bada, txapelketa zatikatuko da, instalazioaren edukiera inoiz ez gainditzeko, eta txapelketako proben hurrenkera aldatuko da, probak sexuka, adinka edo sexuka eta adinka multzokatuz, adibidez.

Edukiera kontuan hartzeko, honako hauek ere kontuan hartuko dira, kirolari kopuruaz gain: Klubeko osasun arduraduna, epaimahai teknikoa, txapelketako zuzendaria eta teknikari edo ordezkari bana klub edo ikastetxe bakoitzeko.

Osasun arduraduna, epaimahai teknikoa eta txapelketako zuzendaria igerilekura bertaratu beharko dira beroketak hasi baino gutxienez 15 minutu lehenago. Osasun arduradunak A eranskina beteko du, eta aurretik zehaztutako guztiei tenperatura hartuko die. Haietakoren batena 37° C baino gehiagokoa bada, ez zaio utziko igerilekura sartzen.

3) Klub bakoitzeko teknikariak edo ordezkariak osasun arduradunari horretarako gaitutako igerilekuko sarrerako atean B eranskina eman beharko dio, apartatu guztiak beteta, tenperaturarena izan ezik, arau orokorretan zehaztutako eranskinekin batera. B eranskin bat aurkeztuko da txapelketa banatu den zati bakoitzeko. Garraioaren laukian honako hau adieraziko da: familiako autoa, klubaren autobusa, garraio publikoa eta abar. Osasun arduradunak eranskin horretan jasoko du tenperatura. Haietakoren batena 37° C baino gehiagokoa bada, ez zaio utziko igerilekura sartzen.

4) Arau orokorretan zehaztutako eranskinak, A eranskina eta B eranskin guztiak federaziora bidaliko dira, gainerako dokumentuekin batera.

Beroketetan ezingo da osagarri komunik erabili.

Inor ezingo da igerilekura oinutsik sartu, eta, ahal dela, txankletak eraman beharko ditu, eta, bestela, oinetakoak babestekoak.

4. Parte hartzen duten entitateetan egin beharreko entrenamenduetarako eta saioetarako jarduketa arauak.

Ez da ezer espezifikorik aurreikusten